

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO HAINBAT LANPOSTU BETETZEKO MEREZIMENDU BEREZIEN LEHIAKETAREN DEIALDIA.

KONTUAN HARTZEKOAK.- Kontuan harturik lanpostuak betetzeko aurreko lehiaketatik hona hainbat denbora igaro dela eta Covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-larrialdia atzean utzi dugula, ondoren zerrendatuko diren zentroetako zuzendaritza-lanpostuak bete nahi dira, guztiak ere desgaitasuna duten pertsonen zentroetakoak.

Erakundeko negoziazio-mahaiak lanpostuak berariazko merezimendu-lehiaketa baten bidez betetzeko oinarriak ezagutu eta negoziatu zituen, erantsitako dokumentuetan ikus daitekeen bezala, helburu horretarako egindako bileretan – 2022ko martxoaren 30ean, apirilaren 29an eta maiatzaren 18an, akta zenbaki hauen bidez, hurrenez hurren: 3/2022, 4/2022 eta 5/2022.

Are gehiago, oinarriek errepikatu egiten dituzte, GUFEn eremuan eta merezimendu espezifiko horiei dagokienez aztergai dugun kasurako, zerbitzu zentralak Bizkaiko Foru Aldundiari berari dagokionez negoziatutako baldintzak eta betekizunak, baina, hori bai, GUFeri dagozkion berezitasunak jasotzen dituzte.

Gainera, lanpostuak betetzeko lehiaketa horren bidez, izendapen askearen edo esleipen funtzionalaren sistemaren bidez betetzen izan diren lanpostuen egoera konpondu nahi da hemendik aurrera, bi fase bereizitan. Faseen diseinu horrek aukera- eta antolaketa-arrazoiak ditu sorburu, eta, horien arabera, komeni da lanpostuen deialdia modu progresibo eta ordenatuan egitea, zentro eta zerbitzuetan nahi ez diren porrotak saihesteko, lanpostuon egonkortasuna xede hartuta. Beraz, orain eskaintzen diren lanpostuak Lusa, Zubiete eta Mundakako laguntza-zentroetako zuzendaritzei dagozkie.

Hala, lanpostuak betetzeko deialdia ebatzi ondoren, etenik gabe egingo da kategoria honetan geratzen diren lanpostuen deialdia.

Kontuan hartu behar da izaera horretako beste lanpostu batzuk batzorde honek aztertzeke aurkeztu den egonkortzeke ezohiko sistemaren bidez bete daitezkeela.

KONTUAN HARTZEKOAK.- GUFEn Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, gai honetaz arduratzeko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio.

Horregatik guztiagatik, idazki honen sinatzaileak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, aztertu eta onar dezan, honako



ERABAKIA

Lehenengoa.- 1. Eranskinean zehazten diren GUFeko Lusa, Zubiete eta Mundaka laguntza-zentroetako zuzendaritza-lanpostuak betetzeko berariazko merezimenduen lehiaketaren Deialdia onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honen 2. Eranskinean jasotzen diren deialdiaren oinarriak onartzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau, oinarri guztiekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Iragarki Taulan eta GUFeren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.- GUFeko Gerente jaunari baimena ematea Deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak egin ditzan, dagokion ebazpena eman arte.

Bosgarrena.- Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Batzorde honetan, hilabeteko (1) epean.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 18an.

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Eneko Gutierrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendia